ASTEKARIA | 2014ko urtarrilaren 24an | XVII. urtea | USURBIL | 559. zenbakia | www.noaua.com

# noaua



DYAren ikastaro berria hastear da

Danborrada, irudita

Parte hartzea, formazioa eta sentsibilizazioa, Sexu Aholkularitza Gunearen ardatzak

Susi Elosegi

# “Kantu Taldean oso giro polita sortu dugu”


Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.com web orrian
http://www.
Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu
www.noaua.com
MERKATU TXIKIA
noaua


URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91
URDAIRA


osu
serigrafia
serigiosu@serigrafiaiosu.com
·kamiseta inprimategia
·pegatinak
·iragarki nahiz industri serigrafia
·laneko arropak
·enpresa opariak
·boligrafoak
·txiskeroak
·laser markaketak...
www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL


OGI BERRI
ARTISAU OKINAK
ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!
egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

## Albistea iruditan

# Gure Esku Dago taldea osatu da herrian

Erabakitze eskubidearen inguruko ekimena da Gure Esku Dago izenarekin abiarazi dena. Herriz herri taldeak osatuz doaz eta Usurbilen ere ordezkaritza izango du ekimen honek. Aurreko larunbatean bilera egin zuten Potxoenean. Erabakitze eskubidearen inguruan indarrak biltzen hasi dira eta bilera berri bat deitu dute asteburu honetarako: urtarrilaren 24a ostirala, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

**Giza kate erraldoia, ekainaren 8an**

Gogoan izan, nazio mailako hitzordua ere finkatua duela Gure Esku Dago ekimenak; datorren ekainaren 8an, Durango eta Iruñea erabakitze eskubidearen aldeko giza-kate erraldoi batekin lotu nahi dute, eskuz esku, euskal herritarren laguntzaz. Informazio gehiago: www.gureeskudago.net



**Aurreko larunbatean elkartu ziren Potxoenean. Hurrengo bilera, ostiral honetan 18:00etan Potxoenean.**

## Laburrean

### Otsailaren 3an zabalduko da matrikulazio kanpaina Udarregi ikastolan

Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da 2014-15 ikasturteko matrikulazio kanpaina. Izena emateko hitzordua eskatu behar da, idazkaritzara deituta: 943 361 216. Argibide gehiago telefono zenbaki berean jaso ahal izango dira.

### Ostegun honetan, Kultura Aholku Batzordearen bilera

Diru-laguntzen deialdi berria eta kulturako web orria izango dituzte hizpide nagusi, kultur eragile eta taldeei zuzendurik egongo den bilkura honetan. Hitzordua urtarrilaren 23rako finkatu dute, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean.

### Santa Agedako kantaldia prestatzeko entsegua Zubietan

Santa Ageda bezperako kalejira prestatzen hasteko garaia da. Zubieta Lantzenekoek dagoeneko finkatu dute lehen entsegua: urtarrilaren 31n ostirala, arratsaldeko19:00etan Kaxkapen.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Joxe Piñas**

# Gamonal, Burgos

Azken egun hauetan Burgosko Gamonaleko auzokideak beraien auzoan eraiki nahi zuten Bulebarraren kontrako protestengatik, herrialde ezberdinetako albisteen protagonistak bihurtu dira. Halako protestek eduki duten oihartzuna deigarria da, zorionez egia esateko.

Burgosko auzo handi honetan, eraikitzeko 8 milioi € aurrekontuko duen bulebar honek auzoaren itxura goitik behera aldatuko zuen. Alde batetik, etorbide hori komunikaziorako bide garrantsitzuena delako eta beste aldetik, jarduera komertzialak aldatuko zituelako: tartean aparkaleku pribatu bat eta dendak eta jatetxeak jartzea pentsatuta baitzegoen. Beraz, auzoaren nortasun kulturala zein soziala aldatuko ziren.

Hau gutxi ez bada ere, proiektu honen barruan korrupzio urbanistikoarekin lotura duten pertsonak azaldu dira ere: Mendez Pozo enpresari-konstruktorea bera ustelkeriagatik zigortua izan zen, baina 7 urteko kartzela-zigorretik 9 hilabete besterik ez zituen bete. Afera berdinean, Burgosko alkate ohia kondenatua izan zen ere, nahiz eta laster Alderdi Popularrak indultatu zuen.

Auzokideen Plataformak diru hori politika sozialetan erabiltzea eskatzen du, lanpostuak sortzeko eta gazteentzako laguntzak sustatzeko. Behar horietako adibide bat: 60.000 biztanle dauzkan auzo honetan haurtzaindegi bakarra dago, aurrekontu falta dela eta ixteko zorian dagoena.

Jende askok helburua txalogarria dela dio, baina biolentzia erabili dela esanez auzokideen jarrera gutxietsi nahi dute. Baina jakina da biolentzia kolektibo baten bitartez plazaratzen denean, biolentziaren sorrera horrek arrazoi bat daukala oinarrian beti.

Protesten arrakastaren ondorioz, Burgosko udaletxeak obrak behin-betiko gelditzea eta bulebarreko proiektua bertan behera uztea erabaki du; orain auzokideek atxilotu izan diren pertsonak kargurik gabe aske gera daitezela eta polizia auzotik alde egitea exijitzen dute ere.

Auzokideek elkarri azaldu dioten batasuna eta tinkotasuna azpimarratzekoa da; Espainiako estatuan elkartasun mugimendua eta zenbait hirietan elkartasuna adierazteko mobilizazioak ere bai.

Azken finean, Espainian haserrea eta instituzioetik at beste politikagintza kalean zabaltzen ari da eta hortik sortu daitekeen gizartea eta instituzioak lotuko duen "txispa" baten bila dabiltza; beldurrez batzuk eta itxaropenez besteak.

Hala ere, barruko arazoei bizkarra emateko eta iraganeko mamuetan babestu nahian, ez da falta Burgoskoa "kale borroka"rekin lotu nahi duenik. Espainiako zenbait agintari politiko eta komunikabideen arduradunentzat, egoera kudeatzeko inpotentziaren beste seinale bat.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | **Joxe Piñas** | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

# Kaparoz-Udarregi bidea berritzen hasiko dira laster

Kaparoz-Udarregi bide inguruko lurretan, 2011ko azaroko euriteek Txulunbre erreka aldera lurrak mugitu eta bide bazterrean eragina izan zuen. Bide zati hori seinalizatua egon da konpondu bitartean, baina dagoeneko leheneratze lanak aurreratuta daude. Lurrak egokituak izan dira eta bide izkinen errematearekin amaituko dira bertako lanak. Proiektuan jasotzen denean oinarrituz, bertako lurrak egokitu eta bide bazterra konpontzea C. Alvarez, S.L. enpresa hobetsia izan zen. Lan honen aurrekontua 22.529,76 eurokoa da, BEZa barne. (Iturria: Udala).



**22.529 euro inbertsioa egingo da.**

## Inauteri Festarako proposamenak iristen hasi dira

Martxoaren 1ean ospatuko da eta hasi dira lehen proposamenak iristen. Eta zuk, zertaz mozorrotu nahiko zenuke? Ideiaren bat baduzu, bidali zure proposamena elkartea@noaua.com helbidera, 943 360 321 telefono zenbakira deitu edo NOAUA! egoitzara ekarri.












# 2012ko datuen azpitik geratu da 2013ko langabezia-tasa

Datu baikorrak, 2013a agurtzeko. Usurbilgo langabezia tasak behera egin zuen abenduan, eta 2012a agurtzerakoan baino lanik gabeko herritar gutxiagorekin gainera. 374 ziren 2012ko abenduan lanik gabe zeuden usurbildarrak. Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera, 366 langabeturekin agurtu du udalerri honek, inoizko datu ilunenekin hasi zuen 2013a. 382 langabetu erregistratu baitziren urte hasieran, krisialdia hasi zenetik izandako kopuru altuena.

Gorabehera hauek kenduta, gainerakoan aldaketarik ez langabetuaren profilari dagokionez. 366 langabetutik, tarte txikiz baina lanik gabeko emakumeek gizonezkoek baino gehiago izaten jarraitzen dute. 25-44 urte artekoen artean, eta zerbitzuen sektorean segitzen du lanik gabe dagoen herritar kopuru altuenak.

**Emakumezkoen lan kontratu gehiago**

Buruntzaldetik ere berri onak. 5.000 langabeturen mugatik behera jaitsi baita langabezia tasa aurreko hilabetean, udalerri guztietan izan den beherakadaren ondorioz. Azaroan, 5.102 langabetu erregistratu ziren, urte amaieran 4.800. 300 gutxiago beraz. Eta beherakada hau ere Gipuzkoa mailako datuetan islatu da. Herrialdeak 46.612 langabeturekin amaitu baitu urtea, azaroan (49.208) baino ia 2.600 langabetu gutxiagorekin.

**263 kontratu erregistratu ziren abenduan**

Erregistraturiko lan kontratu kopuruan ere aldaketarik ez. Azaroan bezala, 2013ko azken hilabetean ere 263 lan kontratu erregistratu ziren. Gehienak aldi baterako eta zerbitzuen sektorean. Baina azaroan sinatu ziren 263 kontratutik 150 gizonezkoenak baziren, datuok irauli dira abenduan. Abenduan, erregistraturiko 263 lan kontratutik 145 emakumezkoenak ziren.

**Langabezia 2013an**

Usurbil: 366.
Buruntzaldea: 4.800.
Gipuzkoa: 46.612.



382 langabetu zeuden 2013 hasieran. Baina urte amaieran, 366 ziren langabeak.

**Sexuaren eta adinaren arabera**

Emakumezkoak: 188
25 urtetik behera: 6.
25-44 urte artean: 96.
45 urtetik gora: 86.

Gizonezkoak: 178.
25 urtetik behera: 13.
25-44 urte artean: 100.
45 urtetik gora: 65.

**Sektorearen arabera:**

Nekazaritza: 4.
Industria: 73.
Eraikuntza: 41.
Zerbitzuak: 233.
Aurretik lanik gabe: 15.

**Erregistraturiko lan kontratuak, 263**

Aldi baterakoak: 256.
Zerbitzuen sektorean: 240.
Sexuaren arabera: 118 lan kontratu gizonezkoenak, 145 emakumezkoenak.

**Buruntzaldea, guztira, 4.800 langabetu**

Andoain: 1.045.
Astigarraga: 319.
Hernani: 1.338.
Lasarte-Oria: 1.370.
Urnieta: 362.
Usurbil: 366.

## Soinurbilentzako logotipo bila

Soinurbil Musika Zikloak 10. edizioa ospatuko du aurten. Hori dela eta, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean Soinurbilen logotipoa sortzeko logo lehiaketa antolatu dute.

Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, beste lehiaketetan parte hartu gabea, eta ez da izango beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ez zati batean.

Logoaren gaia "Soinurbil" izanik, hiru ardatz bilduko ditu: Usurbil, musika eta hurbiltasuna.

**Aurkezteko epea: urtarrilak 31**

Epaimahaiak sari bakarra banatuko du, 400 eurokoa. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da, biak barne.

Informazio gehiago Udaletxean edo Zumarte Musika Eskolan.

## Bihurri ludotekan, kuota ordaintzeko garaia da

Otsailaren 15ean amaituko da ludotekako kuota ordaintzeko garaia. 15 euro sartu behar dira kontu zenbaki honetan. 2095 5069 06 1063903578, Kutxa. Kontzeptuan izen-abizenak jarri eta ziurtagiria ludotekara eraman.

Norbaitek lehen aldiz apuntatu nahi badu, "30 euroko ingresoa egin eta ziurtagiriarekin ludotekara azaldu dadila osteguenetan 16:45etik 17:45era".

Ludotekan jarraitu behar ez duenak giltza entregatu dezala, hori ere eskatu dute Bihurriko kideek.

Informazio gehiago, ostegunetan ludotekan edo emailez: bihurriludoteka@gmail.com

Egunotan itxita dago Bihurri ludoteka. Matxura larri bat egon da eta lehenbailehen konpontzen saiatuko dira.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Parte hartzea, sentsibilizazioa eta formazioa, Sexu Aholkularitza Guneko lan ardatzak


Gizarte Zerbitzuen egoitzan dago Sexu Aholkularitza Gunea.

Sexualitatearen ulermenerako esparru berri bat eskaintzea; sexualitatea balio gisa zabaltzea; begirunezko sexualitatea bultzatzea, harreman hierarkikoak gainditzea eta sexu errepresiboa atzean uztea; banakoaren eta harremanen autonomia areagotzea; aniztasuna eta interdependentziaren ideia sendotzea.

Helburuok landu asmo ditu hasi berri dugun 2014an, bi urte bete dituen Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak. Hori guztia, betiko helburu orokorraz ahaztu gabe; "sexu bizipen positiboak, norbanakoaren ongizatean eta komunitatearen osasunean mesede egitea. Honi esker, Usurbilgo biztanleek pertsonen arteko harreman errespetagarriak, arduratsuak eta egokiak izan ditzaten lortuko dugu".

## DOAKO ZERBITZUA

Horretarako, "zerbitzuak, programak eta jarduerak sortuko ditugu, hainbat esparrutan esku hartzeko". Gogoan izan batetik, herritarrei doako aholkularitza zerbitzua eskaintzen jarraituko dutela bi astean behin. Hilabete bakoitzeko lehen, hirugarren eta egongo balitz, bosgarren astearte arratsaldetan; 17:00-19:00 artean, Gizarte Zerbitzuetako egoitzan.

Modu batean edo bestean, 340 lagunek baliatu dituzte azken bi urteotan Sexu Aholkularitza Guneak eskaintzen dituen zerbitzuak. Aurreko ikasturtean adibidez, 46 lagunek (36 emakume, 10 gizonezko) jaso zuten banakako aholkularitza aurrez aurre gunean bertan, telefonoz edo sare sozialen bidez. "Usurbilgo biztanleen kopurua kontuan hartuta, aholkularitzak oso harrera ona izan duela esan dezakegu", azaldu digu guneko arduradun Elena Jimenezek.

**ELENA JIMENEZ**

***"Elkarlanerako hainbat bide ireki ditugu garapen eremu ezberdinekin harremanak landuz"***

Formazioa, prestakuntza eta orientazioa ere bultzatzen jarraituko dute, herriko eragileen artean. Sentsibilizazio eta prebentzio lana ere bideratuko dute. Printzipio hauen bueltan lan egin asmo dute: emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna; sexu identitatearen, desiren eta adierazpenen bizipen positiboa; eta sexuen arteko bizikidetza sinergikoa sustatzeko lanean.

## GURASO, GAZTE ETA JUBILATUEI ZUZENDUA

Herri eragile edota profesional ezberdinei zuzenduriko formazio saioak ere antolatu dira Sexu Aholkularitza Gunetik, "guraso, gazte eta jubilatuei zuzendutako formazio-programak". Ikastaro edota zine-forumak esaterako. Ekimenok Jimenezek koordinatzen duen gunetik eskaini dira. Baina izan dira, Usurbilgo erakunde eta eragile desberdinekin elkarlanean aurrera eramandako egitasmo gehiago ere. "Elkarlanerako hainbat bide ireki ditugu garapen eremu ezberdinekin harremanak landuz: haurren eremuan, guraso elkarteekin; haur-aurrenerabe eremuan, ikastola, Gaztelekua eta Tuenti sare sozialaren bidez; gazteen eremuan, Itaya Gazte Asanbladarekin eta Usurbilgo Gaztetxearekin; jubilatuen eremuan, zahar egoitzekin. Horrez gain, herriko beste instituzioekin ere harremana izan dugu: anbulatorioko langileekin, liburutegiarekin baita kirol arduradunarekin ere", Jimenezen esanetan.

Elkarlan hau hainbat ekimen zehatzetan gauzatu da. Besteak beste, iazko ekainean Oiardo Kiroldegian ikusgai egon zen "Lesbianismo bidean: ezkutukotik ikusgaitasunera 1977-2007" erakusketa, edota "Desiraren putzua" zabaldu zuten 2012ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira. "Gozamenez" clown bakarrizketa ere antolatu zuten... Herritarrek hitzordu guztiotan parte hartu zuten, eta parte hartzea da hain zuzen Sexu Aholkularitza Gunetik bultzatzen jarraitu nahi dutena. "Dibulgazioa, jendarteari zuzenduriko sentsibilizazioa, kanpainak, gogoeta eta parte hartzea. Komunitatearen ondoezak kulturaren oinarrian aurkitzen ditugun mito, aurreiritzi eta aniztasunarekiko intolerantzia jarreretatik datozenez, ezinbestekoa zaigu ildo hau jorratzea", aholkularitza guneko arduradunak dioenez.

### Gunea, hamabostero zabalik

Jendaurreko ordutegia: hilabetero, lehen, hirugarren eta egongo balitz, bosgarren astearteetan: 17:00-19:00 artean, Gizarte Zerbitzuen egoitzan.
Oharra: gunera jo baino lehen, aurrez hitzordua eskatu.

Harremanetarako:
sexuaholku@usurbil.net
679 919 516
943 377 110

# Nerabeen sexualitatea aztergai, Sexu Aholkularitza Gunearen ikastaro berrian

12-16 urte artekoen sexualitatea aztergai nagusi izango duen ikastaroa antolatu du Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak, otsailaren 11, 18 eta 25erako. Hiru saioak arratsaldez izango dira, 17:30-19:30 artean, eta aipatu guneko arduradun Elena Jimenez sexologoak bideratuko ditu. Ikastaroa, 12-16 urte arteko gazteen guraso eta hezitzaileei zuzendua dago.

### IZEN-EMATEA, ZABALTZEAR

Izena emateko epea, urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arte, sexuaholku@usurbil.net helbidean edo 697 919 516 eta 943 377 110 telefono zenbakietan.



Elena Jimenez sexologoak gidatuko du ikastaroa.

Neska eta mutilen ezberdintasunak eta ezaugarri biografikoa, sexu esterotipoak eta lehenengo jokabide erotikoak (bakarkakoa, bikotean edo taldean), maitemina eta desira, plazer globala eta genitala, Giza Erantzun Sexuala edota pornografia, gaiok jorratuko dira otsailerako iragarria dagoen ikastaroan. Nerabeen galdera, zalantza, behar eta egoerak aztertuko dira, eta “egoera zehatzen harira hezitzaile bezala dugun jarrera, aurreiritzi eta jokabideen azterketatik etxean edo eskolan sexu heziketa egiteko giltzarriak landuko ditugu”. Besteak beste; identitate anitzak, erotika, errespetuzko harremanak, ardurak eta eskubideak, potentzialak versus estereotipoak, kontzeptuak…

Ikastaroan parte hartu nahi duzuenontzako oharra: "Ikastarora etortzeko asmoa baduzu, arreta jarri egunerokoan eta gertaerak, egoera zehatzak, elkarrizketak, galderak jaso eta ikastaroan aztertzeko aukera izango baitugu".

# Batukada taldearen lehen saioa, larunbat honetan

Batukada feministak ugalduz joan dira azken aldian. Usurbilen ere, talde bat osatzeko aukera dago. Aurreko astean iragarri genuen bezalaxe, batukada ikastaroa larunbat honetan jarriko da martxan. Izena emateko epea irekita dago oraindik.

Hasiera batean bost saio izango dira, bi astean behin, larunbat goizeko 11:00etatik 13:00etara, Zumarte Musika Eskolan. Musika instrumentuak antolatzaileek ipiniko dituzte. Beraz, gogoa baino ez da behar.

Proba moduko ikastaroa izango da hauxe, emakumeei zuzendurikoa, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatua. Hori bai, taldeak jarraitzeko gogoa izango balu, saio gehiago antolatu litezke.



Bost saio izango dira hasieran eta taldea gustura badabil, jarraipena emango litzaioke.

### IKASTAROA, DOAN

Izena emateko, telefonoz 943 377 110 edo emaila idatziz parekidetasuna@usurbil.net helbidera

Ikastaroa gidatuko duena Ainara Sarasketa Alberdi eta Arantxa Vicedo izango dira.

### "Garapen pertsonala eta ahalduntzea"

Martxoaren 27ra arte luzatuko da emakumeentzako ahalduntze ikastaro berri hau.

Saioak ostegunero izango dira, arratsaldez, 17:00-19:00 artean, bake epaitegi atzeko yoga lokalean.

Pepa Bojo psikologoak gidatuko ditu. "Ikastaro honen helburua autoezagutzan eta garapen pertsonalean sakontzea da eta bide batez, emakumeon ahalduntzea eta harreman osasuntsuak sustatzea", berri eman dute, ekimena antolatu duten Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailetik.

Ikastaroa doakoa da, eta dagoeneko hasi da, baina izena emateko aukera dago oraindik:

- parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzi.
- 943 377 110 telefono zenbakira deitu.



## SANTUENEA

**JON ETXABE**

# Urte berria…

■ ■ ■ ohitura berriak? Mundua aztoratua dabilela aspaldiko kontua da jada baina errealitate hori islatzen hasi da hemen apurka-apurka, gure auzo txikian. Urtezahar gauean etxafuego gutxi, geltoki ondoko Olentzeroak biziraun du… Egia esan, egiten duen hotzarekin inork ez du gogorik kalera irten eta halako gauzak egiteko, ze dagoen eguzki kiskalgarriak bete betean jotzen zaituenean… Zentzu gutxi du esaldi horrek, ezta? Ba bai, halakoxea baita ere gure auzoko klima jaun-andreok, zentzugabea.

Ziklogenesia dela eta ez dela, goizean goizeko ipar haize latzak mila eta bat jertse janztera behartzen zaitu. Gero arratsaldeko seiak jo eta beletak beste norabiderantz jotzen du, hego-haize samur baina itogarria, lehenago jantzi dituzun arropak kontuan izanda. Halakoa da nahaspila, San Jose loreak ere, udaberriaren ikur direnak, belazeetan loratzen hasi direla poliki-poliki. Gogorarazi nahi dizuet urteko lehen asteetan gaudela eta martxoaren 21a urrun dugula oraindik!

Baina usurbildar garen lez, beti izango dugu zera leial hori, euri, elur, haize, hotz eta bero guztien gainetik gugana iritsiko dena, eta lehenago bada ere gehiegi axola ez zaiguna: gure sagardotxo maitea! Ohitura aldaezina da hori!



## ZUBIETA

**DENIS ELORTZA**

# Amesten

Zaharra atzean utzi eta urte berri. Bat gehiago motxilara. Eta ari dira pilatzen. Eskerrak amesteko gaitasunik oraindik ere galdu ez dugun. Amestu dut Gipuzkoako Foru Aldundiak pinudiak dituela Andatzan, Zubietakoan eta Usurbilgoan. Eta pinu guztiak botatzeko asmoa duela. Alegia, erabateko txikizioa egingo duela pinuek hartutako mendian.

Eta amestu dut, Foru Aldundiaren politika egiteko modu "berriaren" ondorioz, txikizioaren langintza horretan hasi aurretik Andatzaren inguruko herritar guztioi etxera bidalitako esku-orrietan bere asmoen berri eman digutela, beren egitasmoa zein den aurreratu digutela eta txikizio horrek Andatzaren erabiltzaileoi zein eragozpen eragingo digun abisatu digutela. Horren inguruan Noaua!n publierreportajea argitaratu dutela eta panelen bidez Andatzaren aurpegi berriaren fotomuntaketak erakutsi dizkigutela.

Gainera, amestu dut Foru Aldundiko basogintzako arduradunek Andatzaren erabiltzaileokin (abeltzain, nekazari, zaldun, txirrindulari, mendizale, ehiztari, naturzale eta perretxikozaleokin) bilerak egin dituztela eta bilerotan aukera eman digutela beren egitasmo horri hobekuntzak proposatzeko eta, azkenean, gainera, inguruko paisajistekin landutako irtenbideen artean hautatzeko ere aukera eman digutela, aizue!

Ametsak, amets. Igandean Andatzan ikusi nuena, berriz, amesgaizto.



## KALEZAR

**INMA BALDA**

# Jon Uribe, gurea betirako

Estreinatu berri dugu 2014. urtea eta hemen gara, berriz, Kalezar auzoko kronika izan nahi duen lehen hitzak paperean jartzen. Holako lanetan gabiltzanoi askotan gertatzen zaigu esan nahi duguna hain sakonekoa izanik, hitzak trabatu egiten direla eta taxuzko testu bat sortzea kosta egiten dela. Hau izango litzateke kasurako.

Berri txar batek astindu gintuen urteko lehen egunak: Jon Uribe gure artetik joan egin zaigu, ustekabean, adiorik gabe, inork espero ez zuenean. Heriotza guztiak dira mingarriak eta beti hutsune latza uzten dute, bereziki familian. Baina, ezin dugu ukatu Jonek, familiaz gain, urrats sendoa utzi duela auzoan eta herrian. Usurbilgo eliza txiki utzi zuen Jonek, barruan bezain beste jende geratu baitzen kanpoan bere aldeko otoitzaldira ezin sarturik. Adin, pentsamolde eta kolore guztiko jendea bildu zen bertan, denak lagun, denok Jonen adiskide. Gehienok arrakasta eta ospearen bila gabiltza zoriona bertan izango dugulakoan. Jonek, berriz, leialtasuna, adiskidetasuna, bizitzaz gozatzea eta edonori irribarrea eskaintzea zituen guztiokin elkarbanatzeko ondasuna. Apal-apal, goxotasunean eta soinu handirik gabe gure bihotzaren barruan sartu zen eta hemen geratu da betirako. Hau dugu gure zoriona!



## KALEBERRI

**MADDI ZALDUA**

# Festarako aitzakia ugari

Ongi etorri 2014! Nik ere, urtero, promesa ugari egiten dizkiot nire buruari urte berrirako. 365 egun horiek guztiak kunplitzeko, eta urteroko legez, azkenean bat ere ez! Indar falta izan liteke, gogo eta interes falta agian, ez dakit. Harrigarria da baina, parrandarako eta festarako indarrak eta gogoak soberan izaten direla urtero. Ez dute hutsik egiten horiek! Orain artekoen antzera, aurtengoak ere ospakizun andana dakartza.

Lehenengo hilabete honi begirada arin bat bota, eta sagardo denboraldi luzea dugu aurrez aurre. Hasi berri da 2014ko txotx denboraldia eta inguruko sagardotegiek ireki dituzte ateak; urtarriletik apirila bitarteko parrandetarako aitzakia ezin hobea dugu beraz.

Inauteriak ere, ate joka dauzkagu. Mozorroa erabakitzeko dugu oraindik, baina, hasi beharko dugu etxeko trapu zaharrei hautsa astintzen, berandu baino lehen.

Gehiegi aurreratzea izan liteke, baina Usurbilgo Sagardo Egunak ere harrapatuko gaitu konturatzerako. Tartean ahaztutakoak, zein atzetik datozenak ere iritsiko dira. Goza ditzagun denak!

# Danbor festaren oihartzuna

San Sebastian bezperan egin ohi dute danborrada Udarregi ikastolako ikasleek. Galtza urdin edo bakeroekin, alkandora edota kamiseta zuriarekin, kapela buruan, zapia lepoan... Jantziok soinean aritu ziren Usurbilgo gaztetxoak aurreko ostiralean. Eguzkia lagun, gogotsu topatu genituen Lehen Hezkuntzako ikasleak Agerialdeko patioan. Lehen Hezkuntzakoak, aldiz, Ikastolako plaza borobilean aritu ziren. Zubietako Eskola Txikikoek ere, San Sebastian eguneko danborrada eskaini zuten, bertaratu zirenen gozagarri.



**Lehen Hezkuntzako ikasleak Udarregiko patioan aritu ziren. Haur Hezkuntzakoak, Agerialdekoan.**



**Danbor festarekin bat egin zuten Aginagako ikasleek.**



**Zubietako Eskola Txikikoak ere ostiralean eskaini zuten danborrada.**

## Hasi dira Inauterietarako lehen mozorro proposamenak iristen

Martxoaren 1ean ospatuko dugu Usurbilen, 2014ko Inauteri Festa. Mozorrotzeko gaia zehaztu nahi dugu, baina zuen laguntza behar dugu. Zertaz mozorrotu nahi duzue? Datorren Inauteri Festarako gaia, zuen esku oraingoan. Animatu eta parte hartu! Bidali zuen proposamena NOAUA!ra:

- E-posta: elkartea@noaua.com
- Telefono zenbakia: 943 360 321.
- Egoitzako jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 eta 16:00-19:00.

**Proposamenetatik kanpo...**
Adi, aurreko urteetan hautatuak izan diren gaiak ezin dira errepikatu. Hauexek azken hamarkadan, mozorrotzeko proposatu izan diren gaiak: 2013 Musika, 2012 Mitologia, 2011 Itsasoa, 2010 Zirkoa, 2009 Olinpiar Jokoak, 2008 Xomorroak, 2007 Brasil, 2006 Marrazki bizidunak, 2005 Oesteko herri, 2004 Hollywood, 2003 Munduko kulturak, 2002 Extralurtarrak.



**Mozorroan pentsatzeko garaia da.**

# Bost urtez, kantuzaletasuna pizten

Entseguz entsegu, ekitaldiz ekitaldi, kanturako gune bat sortu dute. Eremu ireki eta herrikoia. Erreferentzialtasuna lortu dute jada, Usurbilgo herrigintzan. Denok dakigu hilabeteko azken larunbat arratsaldeak eurentzat erreserbatuak daudela. Eta herrian jaialdiren bat edo kaleko beste hainbat ekitaldi antolatzen badira, eurak ere ez direla urruti ibiliko. Kantuan gehienetan, eta orain baita dantzan ere. Urteotan, bertsoekin uztartu dituzte saioak, lagun arteko kantu afari goxoen bueltan elkartu izan dira maiz… Bost urteko ibilbidea osatu du jada, 2009ko urtarrilean osatu zen Kantu Taldeak. Bilguneko entsegu eta kantu saioak bideratzen aritzen den Udarregi Ikastolako irakasle Susi Elosegik NOAUA!rekin partekatu ditu, taldearen hamarkada erdi honetako kontu eta kantuak.

**NOAUA! Kantu Taldeko gidaria, bideratzailea… Nola deitu zaitzakegu?**
**Susi Elosegi.** Taldeko erreferentea, sarrera bat emateko garaian beti norbaiti begiratzea komeni baita. Tonoak ematen dituena, sarrerak, bukaerak, espazioak estrofatik estrofara… hori izango litzateke neure ardura.

**Nola ikusten duzu bost urte bete dituen kantu taldea?**
Kantuan oso talde giro polita sortu dugu. Hasiera batean lotsa genuen, beldurra. Pixka bat horri guztiari aurre egin diogu bost urteotan eta orain, lasaitasunez, plazerrez abesteko konfiantza handia dugu. Elkar ulertze bat dago gure artean. Kitarrarekin gaur egun golpe bat ematen badut, denek dakite zer esan nahi dudan. Eta gero herriari ere saiatu gara eskaintzen hainbat ekitaldietan, kantuaren presentzia. Eta ekimenak antolatu izan ditugu.



**“Talde honekin asko ikasi dut. Ez naiz irakasle sentitzen”, adierazi digu.**

SUSI ELOSEGI

***“Naturalitatez gutako bakoitzak bere intentzio onenarekin ahal duena jartzen du. Eta hor sortzen den energia eta konexioa, polita da”***

**Zer ekarpen egin ahal dio Kantu Talde batek herri bati?**
Neuretzako, kanturako espazio ireki eta herrikoi hori hor egotearekin bada zerbait. Badituالde onak eta txarrak neure iritzian. Alde ona, gaur egun kantuarekin gozatzen duenak badu txoko honetan parte hartzeko aukera. Baina zoritxarrez badirudi txoko hau ez badago ezin duela kantatu. Eta hori ez da horrela. Kantuak presente egon behar luke egunero, gure bizitzetan. Gustuko duenak asteartero dugu entsegu saioa.

**Nola handitu abesteko eremu hori?**
Pertsonala da, ez da talde baten lana. Gustuko badu, kantu zaletasuna norberak izan behar du, nahiz kantu taldera ez etorri, etxean kantatzen duenak nahiko lan egiten du. Horrekin transmititzen duzun plazerra benetakoa bada, ezin hobeto.

**Zer irakatsi dizu Kantu Taldeak?**
Talde honekin asko ikasi dut, kanta asko ikasi ditut. Ni irakasle ez naiz sentitzen. Hemen dagoen jendeak nik baino hamar mila kantu gehiago dakizki. Gauza asko ikasi dut; gauzak naturalitatez, lasaitasunez hartzen ikasi dut. Denok pertsonak gara, eta norberaren apaltasunetik hanka sartzeko eskubidea daukagu. Ikasteko prozesu batean nago eta gaude denak. Naturalitatez gutako bakoitzak bere intentzio onenarekin ahal duena jartzen du. Eta hor sortzen den energia eta konexioa, polita da.

Jarrera hori niretzat oso garrantzitsua da, ez kantuan soilik, baita bizitzan ere.

**Abestien letrak edo abesten ez dakiela dioenak, modu berean izan dezake bere lekua Kantu Taldean?**
Kantuarekin gozatzen badu beste guztiak bost. Ondo pasa eta gozatzea da garrantzitsuena, hori da taldeari eta herriari transmitituko diona, gehien balio duena.

Beste guztia, etorriko da edo ez. Abesteko gogotsu datorrena ongi etorria izango da.

## “Kantu giro hau jende gehiagori kutsatzea nahi nuke”

**NOAUA! Urteak bete dituzuela eta, desiorik eskatu nahi al duzu?**
**Susi Elosegi.** Gustatuko litzaidake, musika instrumentuak jotzen dituen herriko jendeak parte hartzea. Jende heldua animatuko nuke, gustatuko litzaidake musika instrumentuak ekartzea nota batzuk jotzeko. Musika eskolarekin instrumentu gehiago izango dituen taldea osatzea.

Bestetik, beste erronka; kantu giro hau jende gehiagori kutsatzea nahi nuke.

**Irakasle zara Udarregi Ikastolan. Ikastolan ere kantu zaletasunerako harrobirik ba al duzue?**
Bigarren Hezkuntzan saiatzen naiz betiko euskal kantu tradizionalenak sartzen. Beti agertzen da, hiru kurtsoetatik lauzpabost ikasle, kantatzea gustatzen zaiena. Horiekin saiatzen naiz Ikastola Egunean mikro baten aurrean jartzen, Inauterietako jaialdian ekitalditxo bat egiten eta orduz kanpo motibatzen. Baina ez da adin erraza motibazioa bultzatzeko.



**Musika instrumentuak jotzen dituen jendea ere batu nahiko luke.**

# “Kantu liburuak jendea bateratzen du”

**NOAUA! Erreferente bat bihurtu da kantu liburuxka. Euskal kantuen bilduma ederra osatua duzue?**
**Susi Elosegi.** Liburuak jendea bateratzen du eta ematen du aitzakia denok elkarrekin abesti bat kantatzeko. Baina bestalde, badirudi liburuxka gabe ez dakigula kantatzen. Eta hori ez da horrela. Aurtengo erronka txikietako bat hori izango da, kantu-jira bat egitea libururik gabe.



“Lan egiteko prestutasuna dugu eta hori polita da”, adierazi digu Susi Elosegik.

**Beste Kantu Taldeekin baduzue harremanik?**
Beste herrietako taldeekin harreman pixka bat bada bai, baina ez da erraza. Asteburuetan bakoitzak bere bizimodua du. Halere, talde kide batzuk joaten dira beste herri batzuetara puntualki. Bestalde, kantuaren inguruan antolatzen diren ekitaldien inguruko informazioa banatu eta egutegi bat egiten dugu.

**Usurbilgo eragileekin bai, hainbat ekitalditan elkarlanean ikusi zaituztegu?**
Bai. Kantua eta dantza uztartzen gabiltza orain. Aurrekoan dantza-kantu-jira egin genuen, beraiek badakizkite lauzpabost muxiko. Gurekin trikitilari bat etortzen da eta orduan, kantatu edo fandango edo arin arina dantzatzen dugu.

**Larunbatean kantu-jira.**
Animatu nahi ditut kantatzera kalean, etxean, kantatzea. Kantatzearen plazera berreskuratzea norberaren plazerretik. Ahaztua dugu ze ondo pasatzen dugun, zenbat sentimendu kanpora daitezkeen kantuaren bidez eta zenbat eman daitekeen.

> SUSI ELOSEGI
> *“Ahaztua dugu zenbat sentimendu kanpora daitezkeen kantuaren bidez eta zenbat eman daitekeen”*

### KANTU TALDEA
**Urtarrilak 25, larunbata**
**19:00** Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

**Asteartero:**
18.30-19:30 Entsegua Udarregi Ikastolako musika gelan.

## Bost urte bost une, Susi Elosegiren eskutik

**1 Kantu Taldean parte hartzeko gonbita jaso zenuenekoa.**
Taldearen motorea Mikel Usabiaga da. Berak esan zidanean ia prest nengoen parte hartzeko, taldearen erdian egoteko moduan ez nintzela sentitzen erantzun nion. Ezezkoa ez esateagatik, hasiera batean laguntzeko prest nengoela esan nion. Baina ez nuela neure burua bertan luzarorako ikusten. Ez nuen pentsatuko bost urte hain azkar pasako zirenik.

Halere oraindik esaten diet ia aldatu nahi duten, niretzat interesgarria litzateke taldeak beste gidari bat izatea. Polita baita, aberatsa. Beti animatzen diet baina ez dute aldatu nahi.

**2 Lehen entsegu saioa.**
Lehenengo saioak, oso serioak, hotzak, isiltasun askokoak izan zirela oroitzen dut. Tentsio puntu bat bazen. Orain beste giro bat dago. Orain etortzen dira eta isilik egotea ere kostatzen da. Ondo pasatzen dugu.

**3 Kalera atera zineten lehen aldia.**
Hasieran kanpoko saioak kanpora begira egiten ziren. Egun, denon artean, Kantu Taldea guretzako izatea lortzen ari gara, guk ondo pasatzeko. Bestalde, hasiera batean kantuan aritzen ginen soilik. Gerora, beste alor batzuetan lan egiten saiatu gara; kantua eta bertsoa, orain kantua eta dantza uztartzen ari gara. Lan egiteko prestutasuna dugu eta hori polita da.

**4 Taldearekin antolatu duzuen ospakizun bat.**
Gazte talde usurbildar batek beraiekin kantu afari bat egitea proposatu zigunekoa. Elkartruke polita izan zen. Geuk geure kantuak kantatzen genituen eta gero beraien artean baziren gitarristak eta beraien kantuak jo zituzten. Oso ondo pasa genuen.

Gainera argia joan zen. Kandelak piztu genituen, oso afari erromantikoa izan zen.

**5 Gogoko kanturen bat taldearentzat.**
Boladaka mugitzen gara. Hasiera batean berehala konturatu ginen “Aberriaren mugak” oso ondo ateratzen zela. Hasieran kanta hau saio guztietan abesten genuen. “Herriko festak” edo “Trapu zaharrak” ere hor daude. Bat batean konturatzen ginen kantu batekin indarra atera edo eroso sentitzen ginela. Laboaren “Martxa baten lehen notak” edo esaten dizkidaten kantak, erraz funtzionatzen dute eta horiek beti ateratzen dira.

# Euskal identitatearen alde neurriak adosteko, nazio mailako bilkura deitu du Udalbiltzak


Udalbiltzak prentsaurrekoa eskaini zuen aurreko astean Usurbilgo udaletxean.

Otsailaren 22rako deitu dute hitzordua, Ordiziako herri antzokian. Estatuen inposaketari aurre egin eta euskal identitatearen aldeko neurriak adostu nahi dituzte. "Herri gisa erantzun ez ezik, herri gisa aritu behar dugu" gogorarazten dute. Nazio mailako bilkura hau, urtarrilaren 17an iragarri zuten Udalbiltzako Nazio Gobernuko kideek, Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan.

Euskal Herria aintzat hartzen duten alkateak gonbidatu nahi dituzte Ordiziako ekitaldira. 200-300 alkate eta hautetsi inguru espero dituzte. "Euskal identitatea eta herritartasuna ozen adierazteko garaia heldu da, ekimen praktikoen bidez", iragarri zuten joan den ostiraleko agerraldian.

Udaletik hasita, euskal herritartasunaren aldeko dinamika herritarra piztu nahi du Udalbiltzak. Bada zer egina, bada lanean nondik ekin, Usurbilgo alkate Mertxe Aizpurua buru duen erakundeko ordezkarien esanetan. Lan ildoen artean daude; Espainiako bandera jartzeko aginduari erantzuna ematea; euskal herritartasun agiria sustatzea; Interneteko domeinu propioak garatzea; edota Aberri Eguna baliatzea, "nazioa garela aldarrikatzeko ez ezik, Euskal Herria aintzat hartzen duten eragile eta herritarrak elkartzeko, eta pauso berriak jakinarazteko".

**Bide propioa jorratzea**

Udalbiltza berrantolatu zenetik martxoan beteko da lehen urtea. Azken hilabeteotan egin den moduan, aurrera begirako ibilbide orria zein den gogora ekarri zuten aurreko astean; nazio eraikuntzan eta egituratzean, Euskal Herriak bere errealitate, behar, nahi eta indarguneetara egokituko den bide propioa jorratzea.

Herri gisa erantzunez, Udalbiltzakoen esanetan urtarrilaren 11n Bilboko manifestazioan egin zen bezala. Eta herri gisa arituz, Etxarri-Aranatzen apirilaren 13rako independentziaren aldeko herri galdeketa antolatu duten moduan. Bi ekimenok txalotu zituzten Udalbiltzako kideek iragan ostiraleko agerraldian.

UDALBILTZA

***Katalunia eta Eskoziako galdeketak, "ikasteko eta haiek baliatzeko aukera ona dugu euskal herritarrok"***

Herri gisa aritu eta erantzun beharra dagoela zioten, espainiar eta frantziar estatuen inposaketen aurrean. Udalbiltzatik, bi estatuok giza eskubideak urratzen jarraitzen dutela salatzen dute. "Euskal herritarroi Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpen Unibertsalaren 15. artikulua urratzen digute", diote Udalbiltzatik. "Gurea ez den naziotasuna-frantsesa edo espainiarra inposatzen" baitute aipatu erakundearen esanetan.

**2014a, itxaropen urtea**

Halere itxaropenez begiratzen diote Udalbiltzatik, hasi berri dugun urteari, estaturik gabeko nazioen aldarria pil-pilean izango baitugu. Gogoan izan, Katalunian eta Eskozian independentziaren inguruko galdeketak iragarri dituztela. "Prozesu haietatik ikasteko eta haiek baliatzeko aukera ona dugu euskal herritarrok", Udalbiltzaren esanetan.

Estaturik gabeko nazioentzako deialdi garrantzitsuz josia dator 2014a:

- **Otsailak 22:** erakundearen lan ildoak jorratzeko, Udalbiltzaren nazio mailako bilkura Ordiziako herri antzokian.
- **Apirilak 13:** independentziari buruzko herri galdeketa Etxarri-Aranatzen.
- **Apirilak 20:** Aberri Eguna.
- **Maiatzak 25:** Europako Parlamenturako hauteskundeak.
- **Ekainak 8:** Durango eta Iruñea lotuko dituen erabakitze eskubidearen aldeko giza-kate erraldoia, Geure Esku Dago bilguneak antolatuta.
- **Irailak 18:** independentziari buruzko erreferenduma Eskozian.
- **Azaroak 9:** independentziari buruzko erreferenduma Katalunian.

## Ikurrina legeztatu zutela 37 urte bete dira

Usurbilen 1977ko San Sebastian bezperan orduko udalbatzak burutu zuen osoko bilkuran jarri zuen ikurrina udaletxean. Jendez bete zen udal aurreko plaza. Ordutik ia 40 urte pasa diren honetan, ikurrinaren erabilerak guztiz baimendu gabe eta Espainiako bandera inposatzen segitzen dutela gogorarazi zuen Udalbiltzak, aurreko ostiraleko agerraldian.


1977an, San Sebastian bezperan ipini zen ikurriña udaletxean.

# Lurralde antolaketak hiztunengan duen eragina aztergai

Lurralde antolamendua eta hizkuntza lotzeko zerbait egin beharra, aurrera begirako lan ildoak planteatuz amaitu ziren aurreko astean Donostian, Udako Euskal Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontseiluak eta Usurbilgo Udala kide duen UEMA-k, EHUren babesarekin antolatu zituzten "Lurraldea + Hizkuntza, Hizkuntza + Lurraldea" jardunaldiak.

Lurralde antolaketak eta hirigintzak hiztun-komunitatearengan zer nolako eragina duten aztertu nahi izan zuten, bi egunez Ibaetako campusean burutu ziren saio desberdinen bidez. Ondorio argi batekin amaitu ziren jardunaldiok; lurralde antolaketaren eremuan hartzen diren erabakiek eragiten dutela bertako biztanleen hizkuntzan. Eta eskari argi bat egin zuten: "lurralde-antolamendua eta hizkuntzaren arteko harremana lehen mailara ekartzea".



Xabier Mikel Errekondok Zubietako kasua izan zuen hizpide. Jakoba Errekondok, aldiz, Zeraingoa.

**Zubieta, herri izaerari eusten**

Jardunaldiotan zehar, besteak beste euskararen ikuspegitik arnasgunetzat jotzen diren Euskal Herriko zenbait txokoetako kasuak aurkeztu zituzten; Zuberoa, Busturia eta Zeraingo esperientziak, baita Zubietakoa ere, Usurbilgo alkate ohi eta egun Madrilgo Kongresuan dagoen Amaiur koalizioko diputatu Xabier Mikel Errekondoren eskutik.

Bere esanetan lurralde antolaketak eragin zuzena du gune bateko hiztunengan, bereziki "ze norabidetan aplikatzen den" eta interesak noren mende jartzen diren, herritarren edo beste batzuen interesen mende. Edozein erabaki hartzerakoan, protagonistak herritarrek, euren borondateak izan behar duela dio, herri bati izaera ematen diotenak dira eta, Errekondoren esanetan. Zentzu horretatik duela mila urte herri izan eta egun Donostia eta Usurbilgo lurretan zatitua dagoen Zubietaren eredua aurkeztu zuen. Zubietarrek bizitako hainbat gertaera historikoren bidez, euren herri izaera defendatu zuen. "Zubieta herri izan zen, herri sen hori mantendu eta garatu nahi du", zioen alkate ohiak.

ZUBIETA HIZPIDE

*"Usurbilentzat Zubieta osotasun bat dela gogorarazi zuen Xabier Mikel Errekondok. Donostiarekin gertatzen ez den moduan"*

**Herri sena**

Besteak beste, euskara eta hezkuntzan oinarritu nahi dute etorkizunean, euren izaera propioa. Bide horretan, Usurbilekin duen harremanak Zubieta euskalduntzen lagundu dezakeela uste du Errekondok eta "Usurbilentzat Zubieta osotasun bat" dela gogorarazi zuen. Donostiarekin gertatzen ez den moduan. Zubietak hiriburuarekin urte luzez izandako harreman ezkorra agerian utzi zuen UEUren jardunaldietan. "Zubietarrek argi dute, Donostiarentzat lur zati bat baino ez direla", zioen. Horren adibide gisa jarri zituen, Zubietan kokatu edo eraiki nahi izan eta zubietarrek mehatxu gisa bizi izan dituzten hainbat egitasmo; erraustegi edota makrokartzela proiektuak tartean.

Etorkizunera begira, tresna faltagatik ahul ikusten du Zubieta, Donostia eta Usurbilgo udalen borondatearen mende, eta udalen gainetik dauden beste erakunde batzuek dituzten eskumenen mehatxupean. Aldiz, herritarrak gogotsu sumatzen ditu, Zubietaren herri sena mantentzen segitzeko lanerako prest. Zorte ona opa izan zien zubietarrei.

## Bertako hizkuntza eta hiztunak aintzat hartzeko eskaera

Gustura eta pozik amaitu dute antolatzaileek estreinako edizio honekin, bigarren jardunaldietarako erronkak zehaztuta. Batetik, ikerketa bat burutu asmo dute hirigintzak bertako hizkuntzan eragiten duela frogatzeko. Hurrengo jardunaldietarako ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) izeneko tresna definitzekotan geratu dira, gaia sozializatu eta kontzientziatzeko. Honez gain, hainbat eskari luzatzen dizkiete administrazioei ere; politika publikoetan hizkuntzaren zeharlerrotasuna kontuan izatea, hizkuntza-politika lurraldetasun-printzipioari begira jartzea, gaia lurralde antolaketatako tresnetan txertatzea, lurralde-antolakuntza eta hirigintza alorretan euskara eta euskal hiztunak aintzakotzat hartzea edota hizkuntza babesteko ingurumen alorreko tresnak baliatzea.

200 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten jardunaldiotan. Horien artean, jardunaldiok antolatu dituzten erakundeetako ordezkariek, Euskal Herriko zenbait txokoetako lagunek edota baita atzerritik, Aland uharteetatik, Flandria edota Galesetik euren esperientzia saio hauetara gerturaturikoekin partekatzera etorritakoek ere. Aurrera begira, herrialdeokin harremana estutzeko beharra ikusten dute.

LATAILLADE ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8 , behea 943 363 348 - 609 888 021

ETXETRESNEN KONPONKETA
MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN
645417665
(XABIER)
Usurbil

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

# Garbigunea, berrerabiltzeko objektuez beteta



**Doan hartu daitezke. Haietako asko, egoera onean gainera.**

Oporraldia, etxea txukuntzeko urte garai egokia izaten da askorentzat. Badirudi egunberrietan halako zerbait gertatu dela. Behar ez ziren gai asko, Garbigunera eraman ditu hainbat herritarrek. Eta pasa den ostiralean behintzat, instalakuntzak berrerabiliak izateko zain dauden gaiez betea zegoen. Batzuk eramateko erreserbatuak daude jada.

Aipatu moduan, beste hainbat objektuk berrerabiliak izateko erakusgai egoten jarraitzen dute Atalluko gunean. Doan hartu daitezke. Haietako asko, egoera onean gainera. Garbigunera gerturatu eta doan hartu daitezke:

**Altzariak**
Aulki asko: kanpinetakoak, etxerako... Armairuak, Somier tolesgarriak, Koltxoiak, Arraskak, Pertxak, Baxera eta mahai-tresnak, Lanparak, Baldak, Umeak arropaz aldatzeko tramankulua.

**Apaingarriak**
Plastikozko eta portzelanazko lorontziak, Denetariko apaingarriak.

**Informatika/Teknologia berriak**
Inprimagailuak, Idazteko makina, Ordenagailuak.

**Aisia**
Telebistak, Jostailuak, panpinak, Euskaraz eta erdaraz argitaraturiko liburu ugari, Haurrentzako bizikleta, VHS bideoak, Liburuak.

**Kirolak**
Eskiak, Patinak.

**Garbiguneko ordutegia:**

- Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean.
- Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.
- Informazio gehiago: 943 21 49 77 edo sanmarko@sanmarko.net

# Berrikuntzak Sutegi udal liburutegian

Eguberriek ekarritako opariekin estreinatu dute 2014a Sutegi udal liburutegian. Batetik, erabiltzaileentzako bi ordenagailu berri dituzte goiko solairuan. Eta bestalde, nobedade ugari ekarri ditu urte berriak; liburu eta ikus-entzuneko lan mordoa. Tartean, azken jaietan Ibai Arrieta usurbildarrak ateratako argazkiekin osaturiko DVDa liburutegian dute jada. Baita Odolaren Mintzoa musika taldekoen estreinako diskoa ere, "Xume, Laboa Zumetarenean" lana, edota Joxan Artzeren bi poesia liburu berriekin batera; "Heriotzaren ataria dugu bizitza" eta "Bizitzaren atea dukegu heriotza".

Berrikuntza guztion informazio gehiago, Sutegi udal liburutegiko blogean edo liburutegira gerturatuta.

- Blogeko helbidea: http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/?lang=es
- Ordutegia: 9:00-14:00.
- Telefonoa: 943 360 692.
- E-posta: biblioteka@usurbil.net
- Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia



**Bi ordenagailu berri ipini dituzte goiko solairuan.**

- twitter.com/usurbib
- youtube.com/sutegi05

## Hurbilagoko bizikleta, Loyola XXI enpresarentzat

Coluer Rave 270 markako mendiko bizikleta Loyola XXI enpresari egokitu zaio. Ekitaldietarako material edo azpiegitura muntatzen aritzen den lantegi hau Zumartegi industriagunean aurkitzen da. Alkartasuna Kooperatiban aterako argazkia da ondokoa, bertan eginiko erosketengatik egokitu baitzaie mendiko bizikleta, 069.187 zenbakidun txartelaren jabeei. Langileen artean, bizikleta norentzat izango den erabaki beharko dute orain.



**Alkartasunan jaso zuten saria.**

## Hurbilagoko telebista, Patxi Zumetarentzat

Hurbilagok San Silbestre lasterketan zozketatu zuen telebistaren zenbakia Patxi Zumeta Arregik zeukan. Ostegunean jaso zuen saria Bordatxo parean. Eskubian da saritua.



**Ostegunean jaso zuen saria, Bordatxoko terrazan.**

## Otsailaren 9rako, Zumaia-Orio irteera antolatu du Andatzak

Andatzak 2014an antolatzen duen lehen irteera izango da hauxe. Hiru ordu eta erdi inguruan osatzeko moduko 15 kilometroko ibilbidea proposatzen diete mendizaleei. Informazio gehiago: www.andatzamendizale.info

# Goiko postuetan jarraitzen du Usurbil Judo Klub taldeak



Domina sorta ederra pilatu dute azken hilabeteotako txapelketetan.

Euskadiko eta Espainiako Txapelketetan murgilduak eman ditu azken hilabeteok, Usurbil Judo Klubak. Hego Euskal Herrian Hernanin, Amurrion edota Iruñean izan dira. Espainiar estatuan, Burgosen edo Valladoliden. Hitzordu guztiotan, lehen postuak eskuratu dituzte, eta domina sorta ederra, klubak duen blogetik berri eman dutenez:

**Urtarrilak 4: kadete mailako Espainiako Kopa, Burgos:**
-60 kg Jon Rubio.
-48 kg Paula Vicente: 5. postua.
-52 kg Itsasne Arruabarrena.

**Abenduak 15: senior mailako Euskadiko Txapelketa, Hernani:**
Emakumezkoetan: -48 kg Aiora Arrillaga urrea, -52 kg Miriam Gonzalez urrea, -57 kg Nahikari Borda urrea, -63 kg Sara Quijano zilarra, -63 kg Andrea Arruabarrena brontzea, -70 kg Nerea Arruti urrea.
Gizonezkoetan: -60 kg Andoni Aizpurua urrea, -73 kg Alain Roman brontzea, -90 kg Egoitz Mora urrea, -100 kg Iker Lizarribar urrea.

**Abenduak 14: kadeteen mailako Espainiako Kopa, Iruñea:**
-48 kg Paula Vicente: 5. postua.
-52 kg Itsasne Arruabarrena: 5. postua.
-60 kg Jon Rubio.
-73 kg Josu Ruiz.
-81 kg Mikel Formoso.

**Azaroak 30: senior mailako Espainiako Kopa, Valladolid:**
-57 kg Nahikari Borda: brontzea.
-63 kg Andrea Arruabarrena: 5. postua.
-70 kg Nerea Arruti: urrea.
-60 kg Andoni Aizpurua: 5. postua.

**Azaroak 24: senior mailako Gipuzkoako Txapelketa, Hernani:**
Emakumezkoetan: -48 kg Eneritz Agoues zilarra, -52 kg Aiora Arrillaga urrea, -52 kg Miriam Gonzalez brontzea, -57 kg Nahikari Borda urrea, -63 kg Andrea Arruabarrena zilarra, -63 kg Sara Quijano brontzea, -78 kg Nerea Arruti urrea.
Gizonezkoetan: -60 kg Andoni Aizpurua urrea, -66 kg Eduardo Laca 5. postua, -66 kg Nestor Laca, -66 kg Iñigo Mitxelena, -73 kg Xabier Cazorla urrea, -73 kg Ion Martin, -73 kg Alain Roman zilarra, -90 kg Egoitz Mora urrea, -100 kg Iker Lizarribar urrea.

**Azaroak 16: junior mailako Espainiako Kopa, Amurrio:**
-48 kg Paula Vicente: brontzea.
-57 kg Nahikari Borda
-60 kg Jon Rubio
-66 kg Nestor Laca
-73 kg Xabier Cazorla: urrea.

## Tximeleta taldearen erakustaldia larunbatean Oiartzunen

Tximeleta taldeak aurrelehiaketa antolatu du, Elorsoro kiroldegian, Oiartzunen. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan bukatuko da. Ikastetxe ezberdinek hartuko dute parte, tartean Udarregi ikastolak. Eta hauekin batera, Tximeletako jubenilak eta seniorrak.




Goizeko 11:00etan hasiko da erakustaldia.

## Futbola Haranen

**Urtarrilak 25, larunbata**
10:00 Alebinak: Udarregi 5A-Udarregi 6B
12:00 Kadeteak: Usurbil FT-Dunboa Eguzki
16:00 Regionalak: Usurbil FT-Mariño C.D.

**Urtarrilak 26, igandea**
10:30 Kadeteak, areto futbola:
Usurbil FT-Sukia
10:30 Alebinak, lagun arteko neurketa:
Usurbil FT-Usurbil FT

## Eskubaloia Oiardon

**Urtarrilak 25, larunbata**
9:30 Alebin neskak: Udarregi 5A-Urnieta 5B
9:30 Alebin neskak: Udarregi 5B-Urumea
10:30 Alebin neskak: Udarregi 6A-Udarregi 5C
10:30 Alebin neskak: Udarregi 6B-Urnieta 6B
11:30 Infantil neskak: Udarregi B-Bidasoa Irun
12:30 Infantil mutilak: Udarregi-Tolosa C.F.
18:00 Senior mutilak, 2. nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-S.P. Erandio

**Urnietako udal kiroldegian:**
19:00 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Egia










## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat alokatu edo salgai Munalurran. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, 2 terraza. 637 309 209.

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Baxua salgai Errekatxikin (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, berogailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plazakoa. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Santuenean, diseño polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Emakume bakar batentzat etxe baten bila gabiltza. 400€ arte. Etxe txikia. 687 348 223

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastoak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna , ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inmobiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratukoa. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa.25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.



**Zorionak bihurri!** Jada 2 urte beteko dituzu asteazkenean! Muxutxu goxuak Danel, Unax eta familia osoaren partez!



**Zorionak!** 17 an egin zenituzten hamar urte eta oso ondo pasa genuen. Segi horrela jator eta txintxo. Muxuak etxeko guztien partez.



**Zorionak Peru!** Uxue, aitatxo eta amatxoren partez. Urtarrilaren 24an sei urte betetzen dituzulako!!!



**Zorionak Iñaki!** Ondo pasa zure 11. urtebetetzean. Muxu bat etxekoen partez.



**Zorionak Inge!** 26an, sei urte beteko dituzu. Zorionak, ondo pasa eta muxu asko etxekoen partez!!

## Heriotzak



**Joseba Zuloaga Lizaso**
Urtarrilaren 18an hil zen, 79 urterekin

Ohar, zorion-agur... berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketak egiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

## Lan eskaintzak

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta esperientziduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (Mª Angeles)

## BESTELAKOAK

Behor bat salgai. Zaldiz ibiltzen ikasteko oso ona, paseoetarako zein kirolerako. Deitu eta ikustera etorri: 620011889.

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Donostiako Jesuitinas Ikastola(Ayete), beren haurrak dituztenen gurasoekin hitz egin nahi genuke informazio pixka bat jasotzeko. Harremanetarako: 678708095 (Beñat)

Mahaspildegi elkartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valenciako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kiloa. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu.Miren:656742048; Alaitz:658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egin-da. 637974994

Telebista salgai, Sony. Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Aginagako artoa salgai . Telefonoa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Oa botika | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak urtarrilak 23-otsailak 2

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 23 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Ostirala** | 24 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Larunbata** | 25 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Igandea** | 26 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Astelehena** | 27 | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 28 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Asteazkena** | 29 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Osteguna** | 30 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 31 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 1 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Igandea** | 2 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 24 ostirala

- **Gure Esku Dago taldearen bilera** 18:00etan Potxoenean.

## 25 larunbata

- **Kantu Taldearen kantu-jira.** 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

## 26 igandea

- **Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" 2014.** 9:30ean frontoitik abiatuta. Izen ematea: aurrez, urtarrilaren 23ra arte: kirolprobak.com atarian, edo egunean bertan.

# Bihotz-biriken suspertzeari buruzko ikastaroa, DYAren egoitzan

Oinarrizko bihotz-biriken suspertzea eta kanpoko desfibriladore automatikoen erabileran trebatzeko ikastaroa antolatu du Usurbilgo DYAk. Bi saiokoa, urtarrilaren 27tik 28ra. Klaseak, DYAko egoitza berrian eskainiko dira, Munalurran beraz, 18:30etatik 21:00etara. Interesa duen edonori zuzendua, izen ematea zabalik dago, 943 46 46 22 telefono zenbakian. Argibide gehiago, telefono zenbaki berean. Prezioa, 90 euro. Onartuko den ikasle kopurua mugatua izango da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Aurreko osasun ezaguerarik edukitzea ez da beharrezkoa izango.



**Astelehenean hasiko da ikastaroa eta bi eguneko iraupena izango du.**

"Ikastaro teoriko-praktiko honekin bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzen, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta DEA (Kanpoko desfribiladore automatikoak) erabiltzen ikasten da. Ezaguera erraz, eskuragarriak eta erabilgarritasun handikoak, bereziki bere lana pertsona ugari dagoen guneetan burutzen dutenentzat, baita arriskuzko lanbideetan, gaixoekin, ordena publikoko zerbitzuetan eta segurtasun-gorputzetan, Babes Zibileko talde, suhiltzaile, osasun sorospeneko eta erreskate taldeentzat...", prentsa ohar bidez, DYAtik berri eman dutenez.

## Igande honetan, Hotzak Akabatzen BTT proba

Aurre inskripzioa egiteko hiru bide dituzue; kirolprobak.com atarian, Irisasi BTT bilguneak Facebooken duen orrialdera joanda edo andatzamendizale.info web orrian.

Goizeko 9:30ean hasiko da Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba. Partaideek, 30 eta 40 kilometro luzeradun ibilbideen artean aukeratu ahal izango dute. Izen emateko epea zabalik egongo da urtarrilaren 23ra arte. 12 euro ordaindu beharko dituzte federatuek, 15 federatu gabe daudenek. Zertxobait gehiago proba egunean bertan apuntatzen direnek; 15 euro federatuek, 20 euro federatu gabekoek.

Hori bai, guztientzat Craft kamiseta opari. Eta zozketa ugari parte hartzaileen artean.

Asistentzia edota jan-edan beroa izango dute bidean, hamaiketako ederra helmugan.

## Datozenak

### Datorren ostiralean, elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero legez, preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea 20:00etan hasiko da, Mikel Laboa plazan.

### Tipi-Tapa, otsailaren 2an

Ohi bezala, Bordatxo, Txirristra, Xarma, Aitzaga, Txiriboga, Artzabal eta Txapeldun tabernek, edariarekin batera 2 euroren truke dastatu ahal izango diren pintxo berezi askoak prestatuko dituzte. Gogoan izan, 150 euroko erosketa bale berri bat zozketatuko dutela, Tipi-Tapa txartela osatzeko behar diren zazpi tabernetako zigiluak lortu, eta txartela zazpi edaritegietako zozketa-kaxetako batean uzten dutenen artean.

### 'Malutatxo', Sutegin

Otsailaren 2an proiektatuko dute etxeko txikienei zuzenduriko hurrengo ikus-entzunezkoa; 'Malutatxo'. 17:00etatik aurrera, Sutegin. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 3 eurotan.



**'Malutatxo' filmeko protagonista.**






**URTARRILA**ren **24**an, ostirala, arratsaldeko **8:30**etan **TXOTX** denboraldiari hasiera emango diogu eta **Imanol Agirretxe** izango da ohorezko gonbidatua kupelak zabalduko dituena.

Jai giro ona izatearren elkarrekin, **Mendiluze** eta **Irazu** bertsolariek eta **Xabi Solano** trikitilariak alaituko dute ospakizuna. Animatu zaitez eta azaldu festara!




**SAIZAR**

Sagardoa • Sidra Natural

Sarrera 25€ Menua

Kale-zahar auzoa, 39

**USURBIL**

Sagardotegiko erreserbak: **943 37 39 95**

Bodega: **943 36 45 97**

**e-mail:** sidreria@sidrassaizar.com

**www.sidrassaizar.com**

# UDARREGI IKASTOLA

PARTAIDE IKASTOLAK

*Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:*

- O urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.

*46 urteko esperientzia Usurbilen.*

## Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Otsailaren 3tik otsailaren 14ra (biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16

943 361 216

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com